

*landa eremua
eta baztan
literaturak
kontatua*



Elune Iriarte Bañez

Egilea: Elurre Iriarte Bañez

Azala: Xabi Erratzu

Diseinua: Izaskun Gutiérrez Arruabarrena

metaziri ekoizpenak

<http://metaziriekoiizpenak.blogspot.com>

metaziriekoiizpenak@gmail.com

LG NA 98-2017

AITZIN SOLASA

Azkeneko 13 urteetan Ean poesia egunak antolatzen ditu uztailean HEA kultur Elkartek. Kostaldeko herri ttiki hortan, poesiarekin eta literaturarekin lotuz, urtero gai bat hartzen dute zenbait ekitaldi antolatzeko. Aurtengoan PAISAIA izan dute, “eta paisaia hitz egin zen” leloarekin. Baztango paisaiari buruz solastatzea proposatu zidaten eta liburuxka hontan ageri da eman nien erantzuna. Edozein beldur eta lotsari aitzin egiteko modu bakarra egitea baita, badakizue.

Poesia eta prosan galduz, interneten eta liburuetan barneratuz, lortu nituen testu guziekin osatu nuen ageri den ideia. Ez daude esku artean eta bistan izan nituen testu guziak. Falta dira Baztango idazle aunitz, falta dira Baztani buruz solastatzen diren testu aunitz, baina dena sartzeari ezinezkoa da, beharrezkoa ere ez. Nire hausnarketarako behar nituen testuak ageri dira bakarrik: landa eremua eta Baztan nola ageri zaigun literaturan eta nolakoa den niretako.

Tentazioa izan dut aldaketak egiteko, baina azkenean harat eramanez nuen testu bera duzue ondoko orrialdeetan. Nirekin Xabi Ballarenak egindako irudiak nituen, solasari konpañia eginez, eta horiek ere ez dira hemen ageri: paisaia, lainoa, eguzkia, euria, mendiak. Baina baita ere auzolana, bestak, herri bazkariak, mutildantzak, bideak.

Solasaldiaren ondotik ekarpenak, galderak, hausnarketak eta bertze izan ziren. Zenbaitzuk osagarri, bertze batzuk arras interesgarri. Horiek han gelditu ziren, edo han ginenen buruetan. Dударik gabe Ean zegoen giroa ez duzue nabaritu, etxean bezala sentitu nintzela ez duzue sumatu. Hemen idatzia gelditu dadila: maite nauten eta ditudan lehengusinen artean bezala sentitu nintzen.

2016ko ilbeltza

LANDA EREMUA (ETA BAZTAN) LITERATURAK KONTATUA

Literaturak nolako landa eremua deskribatu digun eta deskribapen horrekin nolako iruditeria sorrarazi digun kontatu nahi dizuet. Hortako batetik poesia eta bertzetik prosa erabili ditut. Eta hortako ere, niretako ezaguna den landa eremua baliatu dut, Baztan.

Dударик gabe, landa eremuaren paisaiaz ari naizelarik, ez naiz naturaz bakarrik ari. Landa eremuaren paisaia naturala nekazariak egiten dute batez ere. Berek erabakitzen dute zer landu, zer landatu, arbolak zertako... Baina paisaia ez da bakarrik natura. Naturaz gain paisaia osatzen duten bertze elementu aunitz daude. Paisaia jendea da, kultura, jarrerak, ohiturak, harremanak, hizkuntza eta abar.

Paisaia kulturala da eta paisaia guk egiten dugu, jendeak egiten du. Beraz iruditeria ere bai. Guk sorten dugu ematen digutenarekin, edo hartzen dugunarekin. Guk aldatzen ahal dugu, osatu, zertaz ez?. Guk birsortzen ahal dugu toki bateko iruditeria.

Segur aski hementxe berean, jende bezainbertze landa eremuko edo Baztango iruditeri izanen dira, nahiz eta aunitzen irudiak bertsuak izan. Bi adibide:

Baztandarra naiz, beraz, nekazaria. Baserri eder batean bizi naiz, mendi bizkarrean, leku eder batean eta egunero ziztuka joaten naiz ardiak deiztera. Argitzean xoriak kantari eta errekaen soinua aditzen ditut. Han bakean bizi naiz, zoriontsu, xakur xuria ondoan eta behiak larrean. Egunero mendi berdeak argitzen ditu eguzkiak.

Edo

Baztandarra naiz eta herri ttipi batean bizi naiz. Maiz euria ari du eta herlanoak bazterrak iluntzen ditu. Aspergarria da. Ez dago deus. Jendeak ez du solasteko gogorik izaten, barridea kritikatzeko ez bada soilik, eta bakoitzak bere sekretuak gordetzen ditu. Gure familian kontu ilunak daude, baina ez gara horri buruz solasten. Ez galdetu neri.

Bi iruditeri, bi paisaia horiek ditugu nagusiki buruan landa eremua aditzen dugularik. Biak nahasian segur aski, bietatik pixka bat. Istantean ikusiko duzue literaturak izan duela ikustekorik.

Nire solas hauek laguntzeko, osatzeko, apaintzeko, testuak behar nituen eta bizitza honetan munduko euskal literatura guzia leitzeko astirik ez dudanez, eskuartean erori zaizkidanen artean egin dut hautaketa. Horietako aunitz lanean paratu ditudan lagunek pasatuak dira. Bertze batzuk, nik bilatutakoak, eta bertze batzuk, hortxe, memorian esperoan zirenak. Horien artean hautatu ditut. Beraz hemen ez da dena.

Landa eremua zer den definitzea maiz ukaziotik etortzen zaigu: hiria ez dena. Baina zehaztu nahian, Baztan deskribatzen definituko nuke zer den niretako landa eremua: biztanle guttiko herriak; lurrarekin harremana dutenak; eraikuntzen eta paisaiaren arteko lotura estukoa; jendearen arteko hurbileko harremana (onerako edo txarrerako).

Normalki iruditerian landa eremuaren paisaia mendialdea da, baina hegoaldeko landa eremuak ere betetzen ditu ezaugarri hauek. Paisaia desberdina da, zabalagoa, zelaiagoa, bertze kolore bat du, baina definizio bera da, topiko batzuk desberdinak badira ere.

Asuncion Urzainki nafar geografoak erraten duen bezala:

Batzuendako landak ongizatearekin zerikusia du, bertzeendako berriz, leku baztertua, aukera eta etorkizunik gabea. Bertze batzuk nekazaritzarekin harremana baino ez duela uste dute.
(1)

Horrek laburtzen du, nire ustez, landa eremuari buruz dugun irudia. Azaletik.

Baina literaturarekin hasiko naiz behingoz, oraintxe aipatutako landa eremu hori literaturak nola kontatzen digun erakusten duten testuekin.

Baztanerat joan baino lehen, interesgarria iruditu zait lehendabizi landa eremuaren iruditeria bilatzea literaturan.

Herri ezezagunak edo izenik gabekoak agertzen dira batzuetan literaturan, eta horrek landa eremuaren paisaia orokor bat ematen digu. Paisaia horrek iruditeri bat eraikiko du gure buruan eta horrekin eraikiko dugu gero edozein herri ezagunen irudia, Baztan konparazioa. Baztango iruditeria, paisaia, osatzean, oinarria izanen dugu landa eremuarena.

Landa eremuan internet ere badugunez, sarean bilatzen hasi nintzen. Eta Eako poesia egunetan gaudenez, poema bat bilatzen hasi nintzen. Bertze gauza aunitzen artean ezagutzen ez nuen emakumezko poeta bat leitu nuen, Balendiñe Albizu. Horra zer dioen:

ZU TA NI BAKARRIK (1972)

*Guazen mundutik urruti
Iñor bizi ez dan lekura
Maitale, zu ta ni bakarrik
Mendi, zeru, ta ura.
Nai ba dezu nirekin etorri
Emen dituzu nire eskuak,*

*Guazen ba biok alkarrekin,
Ta batuko gaitu Jainkoak.
Toki onena badakit non dan
Ta berakin nago lilluraturik
Etxe txiki bat mendi goi-goian,
Mendi, zeru, ur, ta biok bakarrik.(2)*

Argi dago landa eremuaz ari dela. Eta bere mundutik urrun ikusten du eremu hori, aunitzek bezala. Bera zumaia da, eta Euskal Herrian kosta eta landa eremuak nahiko lotuak daude.

Hala ere, Zumaia izaten ahal den landa eremutik kanpo ikusten du maitatzeko toki hori Balendiñe Albizuk: *Iñor bizi ez den lekura*, baina *mendi goi-goian* dagoen *etxe txiki* batera. Maitatzeko toki ideala da beretako.

Orduan oroitu nintzen Asier Serranok Literaturian errexitatu zuen poemarekin. Halaxen hasten da:

Hiriak ez daude maiteminduentzat eginak

Deskartez, herriak bai. Nahiz eta bertze bide batetik doan Asierrena, Albizurenarekin parekatu nuen.

Itxaro Bordaren poemen artean bilatu nuen gero. Bera Oragarrekoa izaki, zerbait izanen zuelakoz. Eta bai, badu, **BEGIRATZEN DUT GOGOAN** hautatu nuen. Aspaldikoa da, 1982koa eta Pello Serbiellek eta Axiarik musikatua dute.

BEGIRATZEN DUT GOGOAN (3)

*Begiratzzen dut gogoan
buruhunaren zokoan
etxe barneko usaina;
amak goiztik egin salda
familiako mahaina
eta sukaldeko malda.*

*Begiratzzen dut gogoan
oroitzapenen zoroan
bustia ezkaratzean;
aitaren tresnen balantza
xingar azpien atzean
eta sagutxoan dantza.*

*Begiratzzen dut gogoan
memoriaren gozoan
arin doan haize ona,*

*ogien uhain horia
zeru urdinen sakona
eta larrosen loria.*

*Begiratzzen dut gogoan,
bizitza nola badoan,
nire herrikoen soa
perla sortu izerdia
ardoan galdu basoa
eta erran hitzerdia.*

*Begiratzzen dut gogoan
azken beltzaren mokoan
haur nintzaneke denbora
ur eta oihan artean,
nola lehen bedi lora
zorion bat anartean.*

Itxarok oroitzapenak eta haurtzaroa gogoratzen zituela ikusi nuen poema hontan, eta azken esaldiak eman zidan bilatzen nuena: *Nola lehen bedi lora, zorion bat gaur artean.*

Landa eremua maitatzeko tokia da batendako, zoriontasunaren iturria bertzearendako. Hauek adibide batzuk bertzerik ez dira, baina euskal poesian bide beretik jotzen duten poema ausarki leitzeko aukera izanen duzue.

Poesia alde batera utzi eta landa eremuari buruz prosan bilatzen hasi nintzen gero. Bilatzen baino, zuzenean memorian nituen bi nobeletara jo nuen: Atxagaren OBABAKOAK⁽⁴⁾ eta Lertxundiren HAMASEIGARRENEAN AIDANEZ⁽⁵⁾. Biak herri ttikietan kokatuak.

OBABAKOAK liburuari buruz tesiak egin dira, baina nik ez dut hain sakonki aztertuko, interesatzen zaizkidan zatiak hartu ditut bakarrik: nolakoa da Obaba, nolakoak dira obabatarrak.

Hona ailegatu eta hurrengo igandean jaitsi ninduan herrira, baina alferrik, zergatik han ez baitago niretzako ezer egokirik. Bakarrik tabernak zeuden han, eta gizonezkoz beteta denak.

Kanpotik etorri den maistrak hala dio, ezin laketuz. Eta maistra berak:

Melanargia Russiae bat naiz. Kortxo bati josia nago orratz batez, eta odolustuz noa pixkanaka.

Kanpotik etorri den norbaitek ezin du herri ttiki batean laketu: isolatua, bakarrik sentitzen da.

Pertsonaiek hartzen dute indarra nobela horretan, baina herriaren deskripzioak badu garrantzi handia. Herria, aroa, jendearen ohiturak ...

Berdea eta bustia izateaz gain, bakartia ere bazen paisaia hura: bideetan ez baitzebilen inor, gu besterik: ez baitzen, uraren burrundaraz gain, beste soinurik aditzen. Bakardade hartan, elizaren dorre zorrotza zen nagusi. Arbelezkoa, arbelak ilunki distiratzten zuen.

Beste jende guzia elizara joaten zen, asko eta asko egunero.

Aroak ere, bere ekarpena egiten du:

*“post tenebras spero lucem”, seiretako gautu egiten zuen Albanian
Baina etzakela pentsa, batzuetan ere eguzkia eiten dik*

Batzuetan. Gainerakoan, seietarako ilun.

Nabarmen ikusten dugu aipu hauetan guzietan iluntasuna, maiz ageri da liburuan. Euriak bezala, elizaren presentziak indartzen du iluntasun hori: eliza iluna da, kolorez eta izaeraz. Herritarrak elizkoiak dira, horrek ekarki duen guziarekin.

Herri ttikietan nabarmenago ageri da elizaren presentzia. Nahiz eta, ederki dakizuen bezala, *omnipresentea* den.

Atxagak Obaba Euskal Herriko edozein herri ttiki dela pentsarazi digu. Ez da Euskal Herriko herri ezagun bat, baina sortzen digun iruditerian Obaba herrian gertatzen den zernahi, herri ttikietan gertatzen ahal da: jende berezia, hertsia, giro iluna, elizkoiak, harreman arraroak edo arazoekin, bakardadea, isolamendua, eta abar.

OBABAKOAK utzi eta Anjel Lertxundiren HAMASEIGARRENEAN AIDANEZ hartu nuen. Hori ere nire memorian zegoen, eta banekien indartuko zuela iruditeri hori. Istorio arras gogorra nuen buruan eta halaxe da: Nobelan apustu giroa da gai nagusia, herri ttiki batean gertatzen da. Elizaren presentzia handia da, eta eguraldiak berriz ere badu zer erran:

Uholdeka zetorren euria Goiko kaleko Santuenetik. Muino batean dagoen eliza zeru grisetik zintzilik balego bezala ikusi nuen euripean, eta Martzelinak hanka punttetan igo zuen elizara bitarteko mailaldia, mantila lepoan haizearen erasoaz eta guardasola zuzendu ezinik.

Honetan gainera giro arras maskulinoa ageri da. Gizona da protagonista baina eredu atzerakoiarekin, nolabait errateko. Emakumezkoen presentzia handia da, baina zapalketaren presentzia nabarmenarekin: gizonen nagusitasuna, jazarpena, bortxaketa, kolpeak, irainak, eta bertze ageri dira nobela guzian, normala balitz bezala. Herri ttikietan normala balitz bezala.

Atsegin zitzazkion, noski, benetako barealdiak Martzelinari, eta ez senarra mozkortua ohean gainera botatzen zitzaioneko gau madarikuak.

Gehiago beldurtu ninduten senarraren begi lausoez, hartu eta jasan behar izan nituen kolpe eta ostikada guztiek baino.

Ez da erran beharrik eredu hau ez dela landa eremuaren espezialitatea, nahiz eta iruditerian hala dugun.

Nobela honetan, kasualitatez, Elizondora joaten dira oporretan protagonistak: Baztan ote zen gaurko Benidorm? Edo Landak? Edo Santo Domingo!

Hemen aipatuko dizuet landa eremuaren halako irudia eman eta gero, Anjel Lertxundik Baztani *kirik* bat egiten diola ZU nobelan. Zu pertsonaiari buruz ari denean:

Loreekin hitz egiteko ohitura du eta animoak ematen die Baztangoak bezain eder daudela esanez. (6)

Landa eremuarekin aski nuela erabaki nuen, lortua nuela nahi nuena: landa eremuko herri ttikietako deskribapenak desberdinak dira prosan eta poesian. Poesiak edertasuna goraiatzan du eta prosak berriz iluntasuna.

Baztanekin hasi nintzen eta hortxe ohartu nintzen bide bertsua egin duela literaturan: poesiako Baztan bukolikoa da, ederra, berdea. Prosan berriz Baztan iluna da, beltzagoa. Ez beti, baina maiz.

Burura etorri zitzaidan lehendabiziko poema zuei etorriko zitzaizuen bera izan zen, Artzerena. Mikel Laboak kantatzen zuen eta euskal kantagintzari esker, maiz gertatu den bezala, arras ezaguna zaigu:

Ez dakit garbi noiz

Bainan, egun sentiarekin

Izango zen

Esnatu ninduen...

Segituan jautsi nintzen

Non nengoen

Baztango bazterrak

Isilka

Nire logelan hasi ziren

Hasi ziren

Sartzen eta sartzen

Leihoa ireki nuen

Eta emeki emeki

Baztango lurtean

Baztan baitan

Baztan izan nintzen (7)

Lekurik ezak, nunbait

Ez du paisaia deskribatzen baina bai paisaiak sorrarazten dion sentipena: Artze maitemindu zen Baztanekin, Baztango paisaiarekin, Baztango mintzoarekin eta paisaia humanoarekin. Nire irudikoz, hori dena adierazi zuen poema horretan. *Baztan izan nintzen* horrekin aunitz erraten du: bat egiten du Baztanekin, bat egin nahi du. Baztan bihurtzen da.

Jose Angel Irigarairen liburuak hartu nituen eta doike! Baztan ageri da.

Eta Baztanen

udazkeneko urregorritz jauntzirik

Amaiurko gazteluaren egoitza datza

zazpi jauzietako azken urrats

gure nahikari galduaren harritzko hatza,

inguru minguru

fagoak, saiak eta artaldeak

gure kondairan denak dira hondarrak,

eta ilunabarrez harri artean

ametsak ximel

oroitzapenak ihes

laminen kankak mutil dantzak,

ai, Baztan!

Bidasoaren ohako

urrin gozo, doinu leun

zu zara

gure oihartzun minduaren lastan. (8)

Irigaraik hemen ukendu gisa, minaren gozagarri gisa ikusten du Baztan.

Koldo Izagirrek *XX. mendeko poesia kaierak* bilduman Irigarairi buruz halaxe erraten du:

Bere obran nostalgiak ez du gibelera jotzen. Gure herria «edozein haizeren menpeko» nahi ez duenaren mindura du. Horixe da nafartasuna, arrangura existentzial-kolektibo bat, gure itolarri historikoa, erresuma baten hondamendian eta erresistentzian islatua. (9)

Hala ikusten badu, horrendako laztan ote da Baztan?

EZ DOK AMAIRUkoekin ari nintzela ohartu eta Leteregana jo nuen. Letek ere halatsu erran zuen bere *Baztango Lurra* poeman. Baztanen bizitzeko, edo guttienez ezagutzeko gogo piztuko zion leitzen zuenari. Imanolek kantatzen zuen:

*Baztan-go lurra,
zugar arkitu nuen
pakea.
Zugarramurditik
indarrez zetozten
antziñako ur garbien
murmurrean
nabaritu nuen
oraindik estali gabeko
bizitza sendo baten
edertasun guzia.*

*Maitatzeko leku paregabea,
gorputz-berritzearen*

*kimu gartsua,
begi urdinen birbizta,
bide ezkutuetan gora
eta gora
dijoan
herri zahar baten pausoa.*

*Zu, Baztan-go lurra,
noblea eta illuntasunik
gabea,
udaberriko eguzkitan
berotua,
lore berrien
musika goxoa,*

*mendi tontorretan
xuriz jantzia,
zeiñen lur ederra,
Baztan-goa.*

*Hiltzen naizenean,
gurutzerik gabe,
pake-pakean,
bertso xamur batzuen
azpian,
hantxen nahi nuke betiko
loratzea. (10)*

Ez bakarrik bizitzeko, hiltzean Baztan aukeratu zuen poetak: *lur ederra, iluntasunik gabea*.

Horrekin askiko nuen segur aski, baina ezagutzen ez nuen bertze poeta bat aipatu zidaten, eta ikasitakoa konpartitzea bezalakorik ez da.

Alexander Tapia Perurena, *poeta atzendua* deitzen dutena. Bidadorrek⁽¹¹⁾ eman zigun honen berri et bi arrazoiengatik izan zela atzendua erran zuen: poeta handien garaian idatzi zuelakoz (Lauaxeta, Lizardi ...) eta nafarra zelakoz.

Euskaltzalea, euskaldunberria, ez dakigu non eta norekin ikasi zuen berea sentitzen zuen hizkuntza. Iruñekoa zen baina Lekarozko eskolan izan zen. Hasmentako eta azkeneko bertsoekin aski da sentitzen zuena ikusteko.

BAZTANGO MENDIAK (1934) (12)

1.

Nik maite zaituztet Baztango mendiak
Udalen yorian iratzez yantziak.

Igaro baintun zuen nagalean
Urterik onenak gaztetasunean.

Gogora datozkit oroitzak pilaka
Ta ausnartzen ditut maiz, gogoz,
aspertzaka.

Nire biotzean orduko su ta gar
Ta aberriarentzat maitetasun azkar!

Ordun loretu zan yeltzaletasuna
Nire baratzean, aratz ta txukuna.

Euskerari lotu nintzaion orduan,
Sakon yosi naiez izate barruan.

2.

Agur Legateko gailur donetsia!
Zuk yasotzen duzu Gurutz gurgarria,

Erakutsi naiez ludi osoari
Zein kutuna zaion geren erriari.

Agur, odeietan kopeta yasoa
Murgiltzen duzuan Auza aundi ta arroa!

Agur, zu Baztango erraldoi larria
Euskadi-zaina lez zerurontz zutia!

Agur, o Mailantz'ko erreka gardena
Aitzez-aitz abesten arin zoazena.

Oraindik nigan dut zeren irudia;
Oraindikan dakust zure ugaizt bizia

Ta dirudit, ene! Apar urdurian
Badagerzkidala, so ezti-eztian,

Aintzinako begi eder ta otzanak,
Niretako, bainan, izan ez ziranak.

Mailantz'ko erreka, zure bazterrean
Azkeneko aldiz, oi, egun batean

Aren abots leunak laztandu ninduen.
Abintza aiek, baina, eraman zituen

Aizeak. O, alde, alde niregandik
Oldozkun itunok! Ez dago zorunik

Beko ludi ontan. Arantzak zein gogor!
Loreak zein murri! Nunai min eta lor!

3.

Ene biotz orrek, berrartu kemena.
Goitik datorkizu sendakai onena.

Norbaitek esan du zerala negarti.
Oi, zure barruan sartu al baledi!

Barruko mingotsa datorkit aora,
Begiok, ordea, so dagite gora.

Ez da betikorra nire itundasuna.
Bizitz onen aruntz badakust zoruna,

Ta minez artean dagerkit, naroa,
Izar distikorra bezala, itxaroa.

4.

Ta nire gogoa larri egin dute.

Baztango mendiak, nire gaztaroko
Poz eta atsekaben mintzoge-lekuko!

Agur, izki biziz, emesti ta yoran
Bizitzon zati bat dirakurt zuengan.

Aintzinako oroitzak dakarzkidazute,

Yakintza, 1934

Oroitzapen onak ditu, *Igaro baitzituen mendien nagalean Urterik onenak gaztetasunean. Yeltzaletasuna eta euskera* deskubritzen ditu Baztanen. Baztan erreferente garrantzitsua bihurtu zen Tapia Perurenarendako, ematen duenez

Lau poetek ederki islatzen dute erran nahi dudan hori: Baztan ederra, maitemintzeko lekua, zoriontasunekoa, bakerako, ongi bizitzeko, hizkuntzaren gordeleku, Euskal Herriaren babesleku Metafora hutsa dena.

.....

Prosan berriz, bertze Baztan bat agertu zait. Maiz hasmentan ikusi dugun OBABAKOAK eta HAMASEIGARRENEAN AIDANEZ liburuen haritik. Ez da hainbertze leku zoragarri bat. Paisaia bertze aipamen berezirik gabe ageri da, aro ilunaren goibeltasuna azpimarratuz. Edo nobela beltzetan. Beltzak edo misteriozkoak edo poliziakoak. Hau da, hilketak, biolentzia.

Nonbaitetik hasi behar eta baztandarra zen idazlerik ezagunenarekin hasi nintzen, Mariano Izetarekin.

Argitaratu zuen bigarren nobelak, NIGARREZ SORTU NINTZEN (1982), bertze Baztan bat erakusten digu. Ez da Artzeren Baztan, edo Irigarairena, edo Leterena, Tapiarena, barnean sartu eta oxigeno gaindosiaz itotzen zaituena. NIGARREZ SORTU NINTZEN nobelako giroak oxigeno faltagatik itotzen zaitu. Izenburuak dioen bezala, kontakizun tristea, bizimodu gogorra agertzen du, etorkizunik gabea. Giro iluna berresten du.

Hauek nobelaren lehendabiziko hitzak:

Martxoko hilabete hartan negu bortitzak agertu zuen bere txarkeria, elurra eta orma lehenbiziko astean eta hilabete erditsuan «garizime haizia» nausi, gero hilabetearen azkenengo egunetan euria leher eginik. Jendeak bazuen lanik aski negu luze haren gaiztakeriak ezin jasanez. San Jose egunean mendietan elurra, zerua goibel, eguna ilun eta jendea ere eguraldiaren arabera jostatzeko gogo guti. (13)

Deskripzio honekin nobela bat hasteak iluntasunean sartzen zaitu. Ez zen gauza bera izanzen udalen yorian idatzenez jantziak hasiko balitz, ez da hala?

Gainerakoan, istorioa tristea. Poemen kontrakoan, istorio hori leituta ez duzu gogo gogorrik izanzen ez Baztan eta ezta landa eremua ezagutzeko ere.

Baztan ageri den prosan historia ageri da maiz, Amaiurko gaztelua eta azken borroka haren kontakizunak. Kontrabandoa ere bai, edo agoteak. Baina hauek bazter batean utzi ditut eta nobela beltzari eskainiko diot tarte. Nobela beltzak bai baitu tokia Baztanen, aspalditik.

Zertaz nobela beltza? Azkeneko lau urteetan *erauntsi* handia izan dugulakoz Baztanen eta Baztanekin. Dolores Redondoren trilogiak Ameriketako indioak bezala deskubrituak sentiarazi gaitu. Baztan deskubritu dute eta Baztan erakutsi diote munduari. Nolako Baztan baina? Baztani buruzko kanpaina positiboa egin dute, *ezagutu Baztan, ederra da, misteriotsua...* baina, erdal mundutik.

Ixiar Rozasek BELTZURIAN erraten zuenarekin guztiz konforme:

hizkuntzak ere paisaia markak uzteko moduak dira. (14)

Hori ikusita, Baztan EUSKAL literaturan aspaldi ageri dela erakustearen beharra sentitu genuen, EUSKAL Literaturan eta EUSKAL nobela beltzean. Eta horixe ekarri dizuet, hilketak ageri diren nobelak Baztanen kokatzeak indartzen duelakoz orain artio errandakoa. Euskal Nobela Beltza zentzu arras zabalean.

Hasteko arestian aipatu dudan Mariano Izeta baztandarrak bere lehendabiziko nobela, euskal nobela beltzaren aitzindari gisa hartu dugu. DIRUA GALGARRI⁽¹⁵⁾ argitaratu zen 1962an eta lehendabizikoetakoa da hilketa, intriga eta ikerketa duena. Ez da Baztanen gertatzen, segur aski Izetaren senak ez ziolakoz utzi hilketa bat Baztanen kokatzea. Baina ezin dut aipatu gabe utzi.

Baztan ageri da Ladron Aranaren PIZTIAREN BEGIAK liburuan ere. Belaten goiti doaz protagonistak, Baztanerako bidean. Negua hautatu du idazleak, ez kasualitatez:

Errepide zaharrean gora joan ahala elurgune gehiago ikusten ziren bazterretan. Laster, mendateko gaina adierazten zuen kartelaren ondotik pasatu ziren. Asfaltoa disdiratsu zegoen, baina une hartan ateri zegoen. (...) laino grisen murre batek ezkututzen zituen Baztango mendiak. (16)

Ikusten duzuen bezala, prosan halaxen agertzen da, Baztan ilun eta misteriotsua, bizitza tristerako edo hilketak gertatzeko eremu gisa.

Bilaketa hortan tonu edo giro desberdina duten bi nobela izan nituen eskuartean: Gotzon Garateren **ELIZONDOKO ESKUTITZAK** (1977) eta Hasier Etxeberriaren **MUTUAREN HITZAK** (2005) Biak euskal nobela beltzen katalogoan sartuak genituen.

Hilketa bat gertatzen da. Baztan ageri da, baina hemengo giroa ez da hain iluna, ez du beti euririk ari, ez da beti negua. Oporretara doaz detektibeak, **HAMASEIGARRENEAN AIDANEZ** nobelan bezala, eta han direlarik norbait hiltzen dute.

Lehendabizikoan Gotzon Garateren pertsonaia Baztanera doa opor eta atsedena hartzera. Jon Bidart detektibearen lagun batek bere Amaiurko sortetxerat gonbidatzen du *egonaldi luze bat* egiterat. Han bere laguna den Anton Hernandorena hilko dute eta kontrabandoaren aferekin nahasiko da dena. Berak argituko du hilketa.

Dena ustekabean gertatua zen. Donostiako Aurrezki Kutxan ebatsi egin zuen lapurra harrapatu ondoren, oso adiskide egin zen hango zuzendari ordezeko Joxeba Eizagirrerekin. Hogeita sei urteko mutil gazte sendo bat zen hau, bere balioz kargu hartara igoa.

Amaiurkoa zen eta Baztango lurraldeetako liraintasuna behin baino gehiagotan aipatu zion detektibeari. Bidartek ezagutzen zituen pixka bat alderdi haiek, eta han egonaldi luze bat egiteko irrikaz zegoen. Horrela agertu zion behin bere nahikundea Joxeba Eizagirreri. (17)

Hasier Etxeberriaren MUTUAREN HITZAK liburuan berdin, pausatzeko toki gisa agertzen du Baztan, eta eskema beretsua: atsedena akitzen ari zaiolarik gertatzen da hilketa.

Azken hilabeteetan Leon Karrika zure lagun artistaren Arizkungo etxean iragandako egun gozoek finitzearen muturra erakusten zizuten Senperenaren heriotzarekin. Eta tristeziak baino, alferrak harrapatuta zinduzkan bere menpean halako gauzaz konturatzearekin bat. Abiadura Handiko bizimodura itzuli beharraren zorigaitzak harrapatuko zintuela pentsatze hutsak nekea eragiten zizun. Akimendua. Beso bat emango zenuke zeuk ere, Arizkungo atsedenean ezagututako lehenagoko Egun Bareak sekula buka ez zitezten. (18)

Bietan ageri da pausaleku, opor leku gisa Baztan eta bietan lasaitasun hortan zaudelarik, bat batean norbait hiltzen dute eta pausatzerat joana zen protagonistak argitu behar du hilketa.

ELIZONDOKO ESKUTITZAREN hasierak gainera, poesiak duen ikuspuntu beretik jotzen du:

Nafarroa, Nafarroa, Euskal Herriaren giltzarria. Jon Bidartek bihotzean sartuak zituen hango lurralde eta jendeak. Ahal zuelarik, hara joaten zen bere oporraldietan.

Nafarroan zangoa jarri orduko, asaben odola bere zainetan irakiten nabaritzen zuen. Jatorria hor, omen dute euskaldunek: Nafarroa zabal, liluragarri horretan. Bai eremuz bai eskuartez Nafarroa duzue Euskal Herriko probintziarik aberatsena.

Euskal Herrian beste inon ez bezala, hor aurkituko dituzue gizakiak oraindik zapaldu ez dituen basoak, beste mendietan galdu diren arbola motak, euskara hutsez mintzo diren errekaak.

Nafarroak ditu Euskal Herriko mendirik garaienak, ibairik luzeenak, basorik handienak, ibarrik kantarienak.

Gizakumeak ere han dira ezberdinenak.

Iruñetik gora nafarrak euskaldunak dira, hots, euskaraz mintzo dira, aurpegietan goiherrietako seriotasuna nabari zaie.

Zoaz Goizueta naiz Lekunberrira. Ez diozu Gipuzkoatik irten zarenik antzik emango.

Barka: jakingo duzu, bai, gizaseme batzuen nahikeriez mugarriak han baitaude. Hernanitik kilometro batzuetara laster edirenen duzu, handik aurrera gizakiak ezberdin direla esango dizun letrero zabal bat. Zenbait tokitan, ordea, letrero anitz eta egia guti.

Tutera edo Tafalla aldean, berriz, Ipar Nafarroan aurkitu ez dituzun alaitasun eta irekitasunak harrituko zaituzte. Beheko alderdi horietan jendea betargiago da, eguzki berotan barre egiten ohituago, festetara eta haserrera emanago.

Edozein arrotzentzat etxeko ateak zabal zabalik dituzte beti. Han alferrik bilatuko dituzu, hemen goiko aldeotan zerua ezkutatzen duten baso pentsalari eta goibelak.

Herriberako gizonak lurrarekin eta zeruarekin harreman estuetan bizi dela dirudi; horiekin ukitu zuzenago dutelako, ausaz, bedeinkazioa naiz madarikazioak errazago ateratzen zaizkie.

Halere, Nafarroa bat da. Nafarroako baso mugagabeak eta zabaldi lehorrak, haritzak, pagoak eta mahatsak, goiko neskatala azal zuria eta Herriberako gizakume belztuak, sinfonia zoragarri bat egiten dute guztiek, bakoitzak bere nortasunaz eta izateaz instrumentu berezi bat joz. (19)

Hitzik gabe utzi ninduen. Maitatu nuen eta ekarri dut. Bai, poesiaren bidetik jotzen du Nafarroa deskribatzeko, baina hegoalde eta mendialdeko Nafarroa desberdintzen ditu, hasmentan aipatutako topikoak erabiliz. Prosaren belztasuna desagertzen da, eta lurrari gorazarre egiten dio:

gizakiak oraindik zapaldu ez dituen basoak, beste mendietan galdu diren arbola motak, euskara hutsez mintzo diren errekaak.

Eta hilketen nobelekin akitzeko, Dolores Redondo aipatu nahi dut hemen. Honek solasaldi honetan ez zuen tokirik izanen, euskal literaturaz ari naizelako, baina iruditeria eta paisaiari buruz ari naizenez, derrigorrez sartu behar izan dut. Sartu beharra sentitu dut. Izan duen ospe eta hedapenarengatik, eragina izan duelako, Baztango eta landa eremuaren iruditerian eta paisaian.

Aipatzekoa da bere nobeletan euripean dagoela beti Baztan eta baztandar gutti ageri direla.

Euria, egun osoan atertu gabe egon ondoren, are gogorrago jotzen zuen Elizondora hurbildu ahala (...) Laino trinko bat ari zen jaisten mendi-mazeletan behera, geldiro, astun, lurretik metro gutxira, komisaria berri hark ikusi zuen lehendabiziko aldian eman zion Itsaso erdian galdutako itsazontziaren irudipena areagotuz.

Baztanen gaua iluna eta patu txarrekoa izan ohi zen.

Gizon eta emakume, ausart bezain burugogorak, zentzu on ororen kontra lurralde heze eta berde hartan, beren kontra oldartuz, uztak ustelduz, haurrak gaitortuz eta han geratzen ziren familia urriak bakanduz, bere aurpegirik etsaikorra eta ezatseginena erakutsi zien lur hartan kokatzen tematuak. (20)

Baztan ageri den EUSKAL nobela beltzetan ez dira segur aski Dolores Redondoren Baztango paisaiatik aunitz urruntzen, baina, erran bezala, desberdintasun handi bat dago: hizkuntza. Eta hori, inportantea da gure paisaiarako, gure iruditerirako. Lehen erran bezala, hizkuntzak markak uzten dituelakoz paisaian. Hizkuntza ezinbertzekoa da paisaia ulertzeko.

.....

Beraz, honekin guziarekin zer erran nahi dut?

Iruditzen zait landa eremua eta Baztan nahasten zaizkigula baina bi iruditeriekin. Batetik metafora bihurtu den iruditeria dugu: maitatzeko tokia, bakean bizitzeko, leku zoragarria, bukolikoa, ongizatearen eremua.

Bertzetik landa eremuaren alde iluna: etorkizunik eta aukerarik gabekoa, baztertua, isolatua, alaitasunik gabekoa...

Badu bietatik, dudarik ez, bertze edozein eremuk bezala, baina ez da hori bakarrik.

Iruditeria osatu nahiko nuke, edo guttienez bertze paisaia batzuk eman.

Poesia idazteko kapaza banintz, idatziko nuke, leitu ditudan poema guziekin desberdina den bat.

Kontatuko nizueke ederki bizi naizela Baztanen, leku zoragarria dela, paisaia ederra dela eta jendea ere bai. Baina batzuetan xuri, bertzeetan beltz. Bakean bizi ote naizen? Baztanen ere, hau ez da nire bakea.

Kontatuko nizueke eremu publikoak okupatzeagatik emakume gisa iraindu nautela, bulkatu nautela, guttietsi nautela. Baina hala ere gozatzen dudala dantzak ematen didan boterearekin, eta espazio publiko hori okupatzen segitzen dudala.

Kontatuko nizueke Baztango %70ak euskaraz badakiela, ederra dela holako datua. Baina erran beharko nizueke zaila izaten dela euskara hutsean bizitzea. Eguneroko borroka dela, segur aski ez Lutxo Egiak izan zuen bezalakoa, baina berdin nekagarria suertatzen dela.

Kontatuko nizueke nekazaritzatik %6 bakarrik bizi direla, nahiz eta etxe gehienetan lur puska bat izan. Hamar urtez erdira jautsi dela.

Kontatuko nizueke nekazari horiek egun eta aste onak dituzten bezala, egun eta aste txarrak izaten dituztela. Baina badutela etorkizuna, enpresa handiek proposatzen dutenetik urruntzen badira.

Kontatuko nizueke borroka handia izan dugula naturari egin nahi izan dizkioten erasoengatik. Edo paisaia urbanistikoan egin nahi dituzten aldaketekin. Aroztegia kontatuko nizueke.

Eta kontatuko nizueke bai, lurreko sua piztea gozagarria dela, baina udan luzez motozerra eta aizkora hartu behar izatea, batzuetan, pisua bihurtzen dela.

Kontatuko nizueke gazteek alde egiten dutela bertze herrialde batzuetara lanaren bila. Baina bertze batzuek Baztan alaitzen dutela, dudarik gabe.

Behar bada kontatuko nizueke landa eremuan bizi garela baina hiriko pentsamenduarekin: erosketak, bidaiak, oporrak, hezkuntza...

Eta kontatuko nizueke aldika oxigenoa falta zaidala eta eskapatzen naizela hirira. Batzuk hiritik landa eremura bezala. Edo kostara. Gaur bezala, Baztanen Baztandarren Biltzarra ospatzen ari da oraintxe berean eta ni berriz Baztandar ez-Biltzarra.

Baina kontatuko nizueke gauza on eta txar guzien gainetik, Baztanen bizitzea erabaki dudala. Eta erabaki hortan paisaia eta iruditeria nire gusturako egitea sartzen dela. Eta horretan ari naizela, ari garela.

.....

Dudarik gabe bertze baztandar batek bertze Baztan bat erakutsiko dizue, baina hauxe da nirea.

Hasmentan erran dudana bezala, Baztango paisaia ez da prosak edo poesiak eskaintzen diguna bakarrik, jendearen jarduerarekin du ikustekorik: harremanak, hizkuntza, ohiturak... Guk egiten dugunez paisaia, guk nahi dugun moduan egiten ahal dugu. Edo saiatu guttienez.

Jose Angel Irigaraik, poema luze bezain eder batean nik baino hobe adierazten du, azkeneko parrafoan, erran nahi dudana:

BIDASOA, POZA ETA MINA (21)

(...)

... eta berriz ere

Ur berriak sortuko dira,

Baztango iturburuak

Ez daude agortuta,

Noizbait harrotuko zinez

Eta bazterrak garbituko uholez

Ber-sortutako ur zaharrez

ERREFERENTZIAK ETA ERABILITAKO TESTUAK

- (1). URZAINKI, ASUNCION. Landa ingurunea Euskal Herrian. Deustoko Unibertsitatea.
<http://www.ingeba.org/euskara/landa/landa.htm>
- (2). ALBIZU, BALENDIÑE. Zu ta ni bakarrik (1972) Basquepoetry.eus
<http://www.basquepoetry.eus/?i=poemak&b=929>
- (3). BORDA, ITXARO. Begiratzen dut gogoan HERRIA, (1982) Armiarma.eus
<http://www.armiarma.eus/cgi-bin/urkiza/EBMODBER.pl?Bertso=11630>
- (4). ATXAGA, BERNARDO. Obabakoak EREIN (1988)
- (5). LERTXUNDI, ANJEL. Hamaseigarrenean aidanez EREIN(1983)
- (6). LERTXUNDI, ANJEL. Zu. EREIN (2015)
- (7). JOSANTON ARTZE HARTZABAL. Baztan HABE(1984)
- (8). IZAGIRRE, KOLDO. XX. mendeko poesia kaierak. Jose Anjel Irigarai SUSA (2001)
<http://www.susa-literatura.eus/liburuak/kaie2318>

- (9). IZAGIRRE, KOLDO. XX. mendeko poesia kaierak. Jose Anjel Irigarai SUSA (2001)
<http://www.susa-literatura.eus/liburuak/kaie23>
- (10). LETE, XABIER. Egunetik egunera orduen gurpilean. Cinsa (1968)
- (11). BIDADOR, JOXEMIEL. *Alexander Tapia Perurena. Olerki lanak*. Iruñeko Udala, 1999.
- (12). BIDADOR, JOXEMIEL. Olerki lan guztiak. Alejandro Tapia Perurena 1925-1956
Armiarma.eus
<http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/T/TapiaOlerkiak016.htm>
- (13). IZETA, MARIANO. Nigarrez sortu nintzen CAP (1982) Armiarma.eus
<http://armiarma.eus/gordailua/IzetaMNigarrez.htm>
- (14). ROZAS, IXIAR. Beltzuria PAMIELA (2014)
- (15). IZETA, MARIANO. Dirua galgarri AUSPOA (1962)
- (16). LADRON ARANA, ALBERTO. Piztiaren begiak ELKAR (2012)
- (17). GARATE, GOTZON. Elizondoko eskutitzak MENSAJERO (1977) Armiarma.eus
<http://www.armiarma.eus/emailuak/mizka/garate4.htm>
- (18). ETXEBERRIA, HASIER. Mutuaren hitzak SUSA (2005) Armiarma.eus
<http://www.susa-literatura.eus/liburuak/narr63>

- (19). GARATE, GOTZON. Elizondoko eskutitzak MENSAJERO (1977) Armiarma.eus
<http://www.armiarma.eus/emailuak/mizka/garate4.htm>
- (20). REDONDO, DOLORES. Zaindari ikusezina EREIN (2013)
- (21). IRIGARAI, JOSE ANGEL. Bizi minaren olerkian PAMIELA (1976)

Paisaia kulturala da: guk egiten dugu, guk idazten dugu. Izan garena erakusten digu baina izan nahi duguna ere bai, idatzi nahi duguna. Guk erabakitzen dugu zer idatzi nahi dugun paisaia horretan, guk erabakitzen dugu paisaia.

METAZIRI
Pentsamendak ekin.